

# Ilusioa hauspo

## KONDESA ESKU-GURIA

Jatorrizko izenburua: La contessa di ricotta.  
 Egilea: Milena Agus. Itzultzailea: Fernando Rey  
 Argitaratze urtea: 2010. Argitaletxea: Cénlit  
 Ediciones – Denonartean

## ANDER IRIZAR

**K**ALITATE aitortuko liburuak euskaratzeko sortu omen du Cénlit argitaletxeak Denonartean zigilua; nazioartean ospea lortu duten egileen lanak ekartzeko euskarara. Eta zinez liburu ederra hautatu dute bideari ekiteko. Bai horixe. Izan ere,

bere laburrean ederra da Milena Agus italiarraren *Kondesa esku-guria*. Liburua Sardinian dago girotua. Cagliari hiriko Castello auzoan, hondatze bidean den jauregi zahar batean hiru ahizpa bizi dira, nor bere apartamentuan. Eraikina, garai batean oso-osorik hiru *kondesa* horien familiarena izan bazen ere, zatika saltzen joan beharrean gertatu ziren gero. Jauregi zaharra dugu nobelatxo honen agertoki nagusia agian, baina hiriko beste gune batzuek eta inguruko mendialde nahiz itsasaldeak ere presentzia nabarmena dute nobelan, eta denek batera

kolore eta argitasun bereziz beztitzen dute kontakizuna.

Eta agertoki horretan, pertsonaiak. Izenburuko “kondesa esku-guria” ez ezik, bere bi ahizpak, eta beste pertsonaia sorta bat ere bai, nork bere ilusioak pozgarri, bizigarri, eta aldi berean nekabide. Izan ere ilusioaren argia eta desilusioaren goibela modu etengabean ageri dira tirabiraka liburuan zehar. Era berean, eta batzuetan aurrekoaren ondorioz, nahasirik ageri dira maiz asko gazia eta gozoa, samurki bat eginik, halako moduz non irakurleari, nahiz eta sarritan loratu irribarrea ezpainetan, garras-

tasun printzaren batek gehienetan eragotzi egingo dion irriñoa barre-algaran lehertzea. Zenbait pasadizo eta zenbait eszena gogoangarriak dira benetan, eta oso bisualak, Milena Agusek xehetasun adierazgarrietan jartzen baitu begia, eta irakurlea hala joaten da pertsonaien eta haien arteko harremanen berri izaten.

Cénlit argitaletxe nafarreko arduradunek ere ilusioa dute hauspo-luzaroan iraungo ahal die!-, eta, hala, gogotsu ekin diote Denonartean zigilu berri honi. Baina ilusioaz gain, eskarmentua eta ofizioa ere badute. Horren erakusgarri, esate baterako,

gure letretara Milena Agus ekartzea aukeratu izana, zeinak, azken urteetan arrakasta handia lortzeaz gain, kritikarien gorespena ere lortu baitu; gainera, jatorrizkoa argitaratu eta hilabete gutxiren buruan kaleratu dute itzulpena, gaztelaniazkoarekin ia batera. Itzultzailea aukeratzera-koan ere, ez dute, ez, aukera txarra egin, Fernando Rey eskarmentu handiko itzultzailea baitugu, eta ez nolana-hikoa. Eta, azkenik, iruditzen zait liburuaren beraren diseinuan ere ahalegindu direla, eta hori ere ez da gutxienezkoa. Ilusioak, orain, irakurleena behar luke.